

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
AUZITEGI NAGUSIA

Administrazioarekiko Auzien Sala

Ediktua

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren zk.: 992/2018; alderdi errekurtsogilea: Errepideko Garraioaren Batzorde Nazionala; errekurritutako egintza: «6/2018 Foru Araua, 18-11-12koa, Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartutakoa, 18-11-19ko 222 zk.ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratua. Foru arau horren bidez, Gipuzkoako A-15 eta N-I gaitasun handiko errepideetan merkantzia garraioan arituko diren ibilgailu astunek zati jakin batzuk erabiltzeagatik ordainduko duten kanona arautzen da». Zehaztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoan, EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioetako Auzietako Salak epaia eman du, 2020/05/05ean. Epaia hori irmoa da, eta epaitzak hurrengo dio, hitzez hitz:

«Baietsi egiten dugu Errepideko Garraioaren Batzorde Nazionalak Gipuzkoako Batzar Nagusien azaroaren 12ko 6/2018 Foru Arauaren aurka jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, zeinaren bidez arautzen baita, salgaiak garraiatzeko ibilgailu astunentzat, Gipuzkoako A-15 eta N-I ahalmen handiko errepideen zati jakin batzuk erabiltzeagatik kanona. Horrenbestez, Gipuzkoako Batzar Nagusien azaroaren 12ko 6/2018 Foru Araua deusez deklaratu behar eta deklaratu dugu; kostuak alderdi demandatuei berariaz ezartzen zaizkie, erdibana.»

Herritarrak jakinaren gainean egon daitezten ematen da eza-gutzera (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legearen -AAJLren- 107. art.).

Bilbo, 2021eko urriaren 18a.—Justizia Administrazioaren letradua. (6727)

TRIBUNAL SUPERIOR DE JUSTICIA
DEL PAÍS VASCO

Sala de lo Contencioso-Administrativo

Edicto

Se hace saber que en el recurso contencioso-administrativo número 992/2018 promovido por el Comité Nacional de Transporte por Carretera, contra la Norma Foral 6/2018 de 12-11-18 de las Juntas Generales de Gipuzkoa publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 222 de 19-11-18 por la que se regula para los vehículos pesados de transporte de mercancías el canon por uso de determinados tramos de las carreteras de alta capacidad A-15 y N-I de Gipuzkoa, se ha dictado por la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco sentencia el 5/5/2020, que ha alcanzado el carácter de firme y cuyo fallo es del tenor literal siguiente:

«Que, estimando el recurso contencioso-administrativo interpuesto por el Comité Nacional de Transporte por Carretera contra la Norma Foral 6/2018, de 12 de noviembre, de las Juntas Generales de Gipuzkoa que regula para los vehículos pesados de transporte de mercancías el canon por uso de determinados tramos de las carreteras de alta capacidad A-15 y N-I de Gipuzkoa, debemos declarar y declaramos la nulidad de la Norma Foral 6/2018, de 12 de noviembre, de las Juntas Generales de Gipuzkoa; haciendo expresa imposición a las partes demandadas, por mitad, de las costas de este recurso.»

Lo que en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 107 de la Ley de la Jurisdicción Contencioso-administrativa (LJCA), se hace público para general conocimiento.

Bilbao, a 18 de octubre de 2021.—La letrada de la Administración de Justicia. (6727)